

BIZKAIERA ZUZPERTZEKO BIDEAK

ERRIAREN EUSKEREA

Bizkaiera bere leenengo euskalki lez ez dabeneztat, ara nun aurkitu dodazan bi idazti edo liburu polit.

Aurki Oñatibiar Yon'eri (berak alaxe idatzi eroian) omenaldi egitekotan dirala, berak idatzitako "Erriaren Euskera Batua" aitatu daigun.

Berreun eta irurogeitamairu orrialde dituan liburu ederra; bertan ogeitamir ikaskai daukoz.

Gorritz bereizten dauz gauzarik garrantzitsuenak, iztegitxuak eta elizti- edo gramatika-laukiak daukoz, gero ikasitakoa ikasberritzeko oso baliagarri diranak. Irakasbidea berez gipuzkera osotuz ageri da, baña ikaskai bakoitzaren amaian euskalkien daukezan ezbardintasunak azaltzen dauskuz, bizkaiera be ageri dala, jakiña.

Badogu Oñatibia'tarrak euskerearen alde egin ebezan bearren barri.

Euskeraz polito ikasi gura dabeneztat liburu bikaiña beraz...

EUSKALERIAREN EDESTUA

Bestalde, aurrak edestia ikasteko idazia aurkeztu gura neuke. Bere izena "Euskalerra'ren Kondaira" dozue; Arrue'tar Gregorio'k atondutako idazti goxo au, leen Oñarrizko Eziketa Orokorra zaneko 7'gn. eta 8'gn. malletarako egokia izaki; izena bearbada ez da ain egokia, "kondaira" berbeak gogora ipuiña, elezaarra dakarskuz-eta. "Edestia" bear luke. Euskalerra'ko sei erkien ikurrean ere naasmenik ageri da orratik, Bizkai'ko ikurdian otsoak, eta Gipuzkoa'koan sutunpak edo kañoiak azaltzen dirala.

Alan eta guztiz be, bai dau orratik alde on-ona; berton zutabe bana darabilte-ta bizkaiera ta gipuzkera azaldu daitezkan; olan ba, ikasleak neke aundi bagerik jabetu leiteke bi euskalki orreen antz eta aldeez; lan erraz, ulergarri ta ariña... Gaurko egunean ikastetxeetan erabilten ez dana... Olango lanak tajutan ebezan orduan...!

Idazti orren atzealdean iztegitxua dator, eta bertako berba egoki batzuen barri emon dagigun: **ABERASBIDE**: rikeza. **ARO BARRI**: Edad Moderna. **ATAKA**: puerto de monte. **BALTZU**: Sociedad Anónima (berba au batuaz be anartuta dago, "alkarte" berbeak oso esan-nai orokorra dauko-ta). **BERAKADA**: decadencia. **BERJABETZA**: reconquista. **BIZIBIDE**: subsistencia. **BURDINGINTZA**: industria metalúrgica. **BUSTINGINTZA**: cerámica, alfarería. **EORTZI**: sepultar. **ERAKUNDE**: institución (au be, emen ageri diran geienak laso, barra-barra erabilli daroaguz. **ERREGÉ** **OIÑORDEKOTZA**: dinastía. **ERROMATARTU**: romanizarse. **ETXEGINTZA**: construcción, edificación. **ETORKIN**: inmigrante. **GOTZAITEGI**: obispado (au be batuaz onartua).

GUDATE: época de guerra. **IKURDI**: escudo de armas. **ITUNBEN**: pacto, tratado. **IZKILLU**: arma. **JAGON**: defender. **JAUNTZA**: señorío. **JENTILBARATZ**: crómlech. **KELTAR**: celta. **KLASE BARRIKO**: de estilo neoclásico. Labe nausi: altos hornos. **LURRUNONTZI**: barco de vapor ("bapore" dalakoa baiño egokiagoa, nire uste apalean). **MEATEGI**: mina. **ONTZIDI**: flota (au be batuak onartua dau). **ORDEZKARI**: diputado, teniente; delegado, representante be izan leiteke; diputado "alduna" da. **TRIKUARRI**: dolmen. **SALEROSLE**: comerciante. **SARRADA**: invasión ("burrustaldi" ta "burrust-eraso" be egokiak dira. **ZIÑARTU**: jurar. **UGAZABA**: patrono. Berak darabiltekan batzuen orde, beste onek obetsiko neukez: Paleolitos Aroa ' **ARRI-ZAAR AROA**, **ARRI-ZAR AROA**. Mesolitos Aroa ' **ERDI ARRI-AROA**, tarteko arri-aroa, Neolitos Aroa ' **ARRI-BARRI AROA**, **ARRI-BERRI AROA**. Iragoketa (transporte); txarto eritxi barik, maizago erabilten doguz **LORRETA bizkaian eta KARRIO, GARRAIO** beste erkietan.

"IKAS" IZTEGIA

Sakeleko iztegi txikar goxo bat be ez daigun aztu: "Euskerazaleak" argitaldutako "Ikas" iztegitxua; egilleok onako onek dozuez: Montiano'tar Joxe Antonio ta urkixo'tar Joxe Ramon; Etxenagusia'tar Karmelo ta peña'tar Xabier'en laguntza izan eben; berreun eta ogeta emetzortzi orrialdeko lana, bertan gipuzkera ta bizkaiera ageri dirala; euskeraz ikasten ari diranai laguntza andia eskeiñi leikie. Berbea bietako zein euskalkitako dan adierazoten dabe, ta barbarik erabillienak batz illunez ageri dira, zeintzuk diran jakin daigun. Geien erabiltzen diran aditzetgako batzuk be azaltzen dira, bai bizkaieraz, bai gipuzkeraz.

Asier Etxaburua'k

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LAGUNTZA JASO DAU